

## Zuzendaritza Batzordeak haurreskolen etorkizuna iluntzen

### Zuzendaritza Batzordeak pasaden ikasturtean hartutako erabaki batzuk:

- Haurreskolak Partzuergoaren kuotak mantendu ditu. Familien errentaren arabera tramuak ezarri ditu. **steilas** sindikatuak aurreikusten zuen bezala erabakia ez da matrikula igotzeko eraginkorra izan. Finantziarioa igo ezean, ezinezkoa da zerbitzua behar beste merkatzea. aurten ere doakotasunaren bidea garatzea dela **steilas**en erronka handienetariko bat da.
- Bost haur baino gutxiagoko matrikulazioa dituzten haurreskolek, bakarrik 7 orduko zerbitzua eman ahal dute. Beraz, familia batzuek 8 orduko zerbitzua ordaindu arren, 7 orduko arreta baino ez dute jasoko. Familia guztiek tratu berdina izan behar dute eta , **steilas**ak neurri honen kontra borrokatuko du.
- Uztailean, ordezkoen araudia aldaketa argitaratu zuen Haurreskolak Partzuergoko web-orrian. Hemendik aurrera bigarren mailako senideak ere zaintzeko eszedentzia eskatzeko eskubidea izango dute.

**ADI!!!** Enpresak dio: Hemendik aurrera ordezkoen zerrendan dauden langileak ume zaintzagatiko eszedentzia hartu nahi izanez gero, 15 egun lehenago jakinarazi behar diola. **Inori aldeztu aurretik abisatu gabe neurri hau indarrean jarri du.** Erabaki honekin ordezkoen araudian uko egiteko aukera bat, bertan behera uzten du.

**Zerrendak kudeatzeko irizpideak aldatu eta gehitzen ditu, inori abisatu gabe.**

